

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 15ekoa. Onestea nekazaritzako ur baliabideen kudeaketarako laguntzak (M04 neurria: inbertsioak aktibo finkoetan), uztailaren 12ko 51/2016 Foru Dekretu bidez onetsiak, arautzen dituzten oinarri arauetan egindako zenbait aldaketa, bai eta 2018rako haren deialdia ere**

Egokitzea Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 12ko 51/2016 Foru Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan, nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko onetsi ziren laguntzen oinarri arauak (zeinak jasota baitaude M04 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan), egokitzuz lege erreferentziak indarrean dagoenari, eta onestea laguntza lerro horretako 2018ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 12ko 51/2016 Foru Dekretu bidez, onespena eman zitzaion nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arauari (zeinak jasota baitaude M04 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan), Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan.

Foru dekretu horretan aipatzen dira azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearena, eta otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen eta transferentzia; eta beharrezko egiten da eguneratzea indargabetuta geratu baitira urriaren 1eko 39/2015 Legearekin, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarekin -2016ko urriaren 2tik indarrean-, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauarekin, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenarekin -2016ko urriaren 29tik indarrean-.

Era berean, ureztatzaileen elkartek laguntza horien onuradun eta botere esleitzzaileak diren aldetik, obra eta zerbitzuak kontratatzean Sektore publikoko kontratuen legea bete behar dute. Hortaz, beharrezkoa da azaroaren 8ko 9/2017 Lege berriak, sektore publikoko kontratuenak, xedatutakoari egokitzea uztailaren 12ko 51/2016 Foru Dekretuak kontratu publikoen legerari egiten dizkion aipamenak. Bestalde, ura gero eta gehiago estimatzen den ondasuna denez, beharrezkoa da mekanismoak ezartzea ura ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Hori dela-eta, egoki ikusten da ura eskuratzeko baldintza bat ezartzea, hots, inolako ordain ekonomikorik gabe beste ureztatzaile batzuekin lankidetzan aritzea, beti ere bakoitzak bere uretatze beharrak beteta baditu.

Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastuen aurrekontuan badago partida bat, 1.000.000,00 eurokoa, bi urterako, ureztaketa sistemak modernizatzeko dirulaguntzak emateko. Hortaz, laguntza horien deialdia onesten da 2018rako.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea ondorengo aldaketak Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 12ko 51/2016 Foru Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan, nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko onetsi zituen laguntzen oinarri arauetan (zeinak jasota baitaude M04 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan).

1.1. 4.2 artikuluar 4. idatz zatia gehitzea. Horren bidez, diruz lagundu daitezkeen jarduketak hautatu ahal izateko baldintza orokorrak berrezartzen ditu, eta alderdi horiek betebeharrekoak dira. Honela geratuko da idatzita:

4.2.4. Beste ureztatzaile elkarte batzuekin lankidetzan aritzea inolako diru etekin eta ordainik gabe, emandako zerbitzuak sor ditzakeen gastuak izan ezik, baldin eta bakoitzak bere ureztaketa beharrak asetuta baditu eta kalterik ez badio sortzen lagatzaileari.

1.2 Aldatzea 7. artikularen (proiektuak egitea) 1 idatz zatia. Hona nola geratzen den idatzita:

7.1. Ureztaketa sistemak modernizatu, finkatu eta hobetzeko obren proiektuak Arabako Foru Aldundiak nahiz ureztatzaile elkarteak egin ditzake, eta bai ere zuzendaritza eta koordinazioko eta laguntza teknikoko beste batzuk. Lan horien kontratazioa ureztatzaile elkarteari dagokionean, Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak xedatutakoaren arabera gauzatu beharko da.

1.3 Aldatzea 10. artikularen (obren kontratazekoa) 1. idatz zatia. Honela geratzen da idatzita:

10.1 Hitzarmenik ez badago edo besterik hitzartzen bada, ureztatzaile elkarte onuradunek obrak kontratatuko dituzte Sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horretarako, Nekazaritza Sailaren aholkua izango dute; hartara, lizitazioaren espediente osoaren kopia igorri beharko diote Nekazaritza Sailari esleipenaren aurretik, salbu eta kontratu txikia egiten denean. Kontratu txikiaren kasuan, nahikoa izango da lehenengo ziurtapenaren aurretik edozein unetan jakinaraztea prozedura horri jarraitu zaiola, eta gutxienez 3 eskaintza aurkeztea, non eta ez den ezina justifikatzen.

1.4 Aldatzea 13. artikularen (eskaerak aurkezteko lekua, epea eta modua) 5. idatz zatia. Honela geratzen da idatzita:

13.5 Eskaeraetan akatsak badaude edo osorik ez badaude, instrukzio organoak haiek konpontzeko eskatuko die interesdunei. 10 laneguneko epea izango dute horretarako, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

1.5 Aldatzea 14. artikularen (Izapidetzea) 2. eta 3. idatz zatiak. Hona nola geratzen diren idatzita:

14.2 Laguntza kudeatzen duen organoak, espedientea instruitzen den bitartean, behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena emateko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

14.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak lehia bidez esleituko dira, foru dekretu honetako 11. artikuluan aurreikusitako hautapen irizpideen arabera. Baldin ez badago kreditu nahikorik betekizunak betetzen dituzten espediente guztiei laguntzak emateko, honela jokatuko da:

Lehenengo ebazpena emango da, eta bertan sartuko dira ezezkoa jaso duten espedienteak eta baiezkoa jaso duten espedienteak, gordetako kreditua agortu arte, aukeratze irizpideak ezarri ondoren lortutako lehentasun ordenari jarraituz. Baiezkoa jaso duten gainerako espedienteak erreserban geratuko dira bigarren ebazpena eman arte, zeina beranduenik ere deialdia egin den urteko azken hiruhilekoan emango baita; ebazpen horrek deialdia behin betiko ebatziko du, eta laguntza esleituko die aurrerago ezarritako lehentasun ordenaren arabera hala dagokien espedientei baldin kreditua gehitu bada, eta ukatu egingo zaie laguntza, krediturik ez badago.

1.6 Aldatzea 15. artikularen (ebazpena eta jakinarazpena arautzen ditu) 2. idatz zatia. Honela geratzen da idatzita:

15.2 Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenak, 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota, berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskaera ezetsi dela esan nahiko du, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikokoaren dirulaguntzenak, 23.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

1.7 Aldatzea 18. artikulua ("Ez betetzeak") 1. eta 7. idatz zatiak. Hona hemen aurrerantzean izango duten testua:

18.1 Onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratu gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesei dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritakoari jarraiki bidezkoak diren egintzei kalterik egin gabe.

18.7 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

1.8 Aldatzea 19. artikulua, araubide juridikoa arautzen duena. Honela geratzen da idatzita:

#### 19. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan adierazitako dirulaguntzen onuradunak arau hauen pean geratzen dira: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra, eta hura aplikatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartua; eta europar araudian, estatuko araudian eta autonomia erkidegoko araudian aplikatzekoak diren gainerako xedapenak; gainera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatutako informazio guztia eman beharko du, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo ordaintzaileak nahiz Herri Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek foru arau horren 8 i) artikuluan xedatutakoaren arabera eskatzen diotena ere.

Bigarrena. Onartzea, 2018. urterako, dirulaguntza horietarako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

– Eskabideak non eta zein epetan aurkeztu behar diren: Arabako Foru Aldundiaren erregistro nagusian, hargatik eragotzi gabe urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoa; eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Ureztatzaile elkarteek gehienez ere bi jardunetarako aurkeztuko dute laguntza eskabidea, eta adituko da lehenbizi eskatutako laguntza dela lehentasunezkoa.

– Kreditu erreserba: 1.000.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018rako Gastuen Aurrekontuko "Ureztaketa sistemak modernizatzeko dirulaguntzak" izeneko 40.1.01.46.02.781.00.03 partidaren kargura, honela banatuta urtez urte:

– 500.000,00 euro 2018an

– 500.000,00 euro 2019an

– Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

— Haztatze koefizienteak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 12ko 51/2016 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritako hautapen irizpideei aplikatu ahal zaizkienak.

Deialdi honetan, hemen behean doan taulan ageri diren haztatze koefizienteak izango dira aplikatzekoak, guztirako puntuazioa lortze aldera.

IRIZPIDEA	HAZTATZE KOEFIZIENTEA
Ura aurrezteak edota ur erabileraren eraginkortasuna hobetzea	2
Azalera	1
Ureztatzaile elkartearen modernizazioaren / hobekuntzaren maila	1
Ingurumenari egiten zaion ekarpena - helburuak	1

Hirugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko, eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteroko deialdiak ebazten dituen ebazpenaren kontra aurkezten diren errekurtsioak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2018ko maiatzaren 15a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**